

Barbara Bengoa Argarate

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1926-2015)*



Aurkibidea

Biografia



1925. urtean Marulanda auzoko (Zarimutz Elizatea) Bentazar baserrian jaioa, baina ezkondu ondoren auzo bereko Zurun baserrira bizitzera joandakoa. Aita Marulandako Etxebarri baserrikoa (Zarimutz) zuen eta ama Mendibe baserrikoa. Baserrian egin du lan bizitza osoan. Elkarriketa egin zitzaionean 77 urte zituen.

Zintak

ESK-006

- **Proiektua:** Leintz bailarako ahozko ondarea

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Segura, Ainhoa
- **Data**: 2002-01-01
- **Iraupena**: 81 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

ESK-007

- **Proiektua**: Leintz bailarako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Segura, Ainhoa
- **Data**: 2002-01-01
- **Iraupena**: 20 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Eskola kontuak

- **Erref**: ESK-006/001
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Umetako kontuak. Eskolan, Zarimutz eta Marin auzoetako umeak. Taberna ondoan zegoen eskola. Dña Petra irakaslearen inguruko kontuak.

2. Eskolan erdaraz

- **Erref**: ESK-006/002
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:03:00. **Bukatu**: 00:05:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolan guzti-guztia erdaraz ikasi zuten.

3. Erlijioaren indarra

- **Erref**: ESK-006/003
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:07:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Igandero mezara joaten ziren eta ondoren bezperetara Zarimutzera. 14 urtera arte dotrinara joan zen. "Gauzak horrela zirelakoan..."</p>

4. Dotrina, Jaunartzea eta garizuma

- **Erref:** ESK-006/004
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:07:05. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Dotrinara ume guztiak joaten ziren. Jaunartzea bederatzi urte ingururekin egiten zen. Garizuman abadearengana joan behar izaten ziren txartela eskuratzeko. Maiatzean, hilabete osoan Zarimutzera joaten ziren mezara. Gaztetako gertakizuna.</p>

5. Kanpaiak

- **Erref:** ESK-006/005
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:12:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Kanpai klaseak: gauean angelusa; goizean harri-kanpaia; eguerdian Pater Nosterra. Neskak eta mutilak, andra-gizonak banatuta jartzen ziren elizan.

6. Jauna hartzeko baraurik elizara

- **Erref:** ESK-006/006
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:15:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Erlijioaren indarra. Guztia zen bekatua. Jauna hartzeko 24 ordutan baraurik egon behar izaten zen; ezer jan edo edan gabe.

7. 'Hijas de María' kongregazioa

- **Erref:** ESK-006/007
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

Erlijioaren indarra. Guztia zen bekatua. Gurasoei errespetua; mutilekin zernolako harremana... "Hijas de María" kongregaziokoa ezkondu arte. Hilero konfesatu eta jauna hartzen zuten. Estandartea eta medailatxo bat eramaten zuten neskek.

8. Erromeria

- **Erref:** ESK-006/008
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Marulandako erromeria, izen handikoa inguru osoan. Soinujoleak. Behin erromerian zeudela gertatutakoa. Barbara eta lagun bat mutilez jantzi zirenekoa.

9. Garizuman, txirikilarekin jolasean

- **Erref:** ESK-006/009
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:21:45. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Garizuma heltzen zenean, ilusio handia txirikilarekin jolasteko. Txirikilarekin nola jolasten zen azaltzen du. Neska-mutilak elkarrekin jolasean.

10. Umetako jolasak

- **Erref:** ESK-006/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:26:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Umetako jolasak: kaka-torreka; itsu-itsuka; sokasaltoka. Orduko bizimodua nolakoa zen. Aramaitako kanpaiarekin batera, etxera joaten ziren.

11. Neska-mutilen arteko harremana; desberdintasunak

- **Erref:** ESK-006/011
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:26:15. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Neska-mutilen arteko harremana. Etxera joateko orduan neskak lehenago itzuli behar izaten ziren. Eskolan, jolasean, elkarrekin ibiltzen ziren.

12. Aita, arotza eta zentralaren arduraduna

- **Erref:** ESK-006/012
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:28:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Umeak aitari-amari laguntzen. Aita, arotza; Dorletan ere jardun zuen urte askoan arduradun. Aita zentralaren arduraduna zen. Argindarra Marin auzoan.

13. Amaren zereginak

- **Erref:** ESK-006/013
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:30:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Amaren zereginak. Abereak berak gobernatzen zituen. Ez zituzten ardirik izaten.

14. Erromeriak; dantza egitea bekatu I

- **Erref:** ESK-006/014
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:30:15. **Bukatu:** 00:34:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Neska-mutiletan. Erromeriak Marulandan, Gatzagan. Dantzan jakitearen garrantzia neskengana gerturatzeko. Garai batean dantzan egitea bekatua zela eta neska batzuk ez zuten dantzarik egiten. Arotzeria lana dirutan ordaindu beharrean, lanaren truke egiten z

15. Erromeriak; dantza egitea bekatu II

- **Erref:** ESK-006/015
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:37:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Anaia misiolari joandakoa Kubarra. Barbarak erromerian dantza egiten zuela eta horren inguruko kontuak. Gauza txikiena ere bekatua zen orduan. Lehenagoko bizimodua nolakoa zen.

16. Neskatan-mutiletan

- **Erref:** ESK-006/016
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:37:05. **Bukatu:** 00:39:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Neskatan-mutiletan. Senarra nolakoa zen.

17. Ezkontzak baserrietan

- **Erref:** ESK-006/017
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:42:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Zenbat urterekin ezkondu zen. Arrioa zelakoa izaten zen. Ehunezko izarak. Maiorazgoa, gehienetan gizonezkoa.

18. Jatekoaren inguruan

- **Erref:** ESK-006/019
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:48:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Egunero-egunero zer gosaldu, bazkaltzen zen. Morokila; porru-patatak; ogia; artua; berakatz-zopa; arto-zopak; e.a. Goserik ez zuten pasatzen.

19. Arto-zuriketa

- **Erref:** ESK-006/020
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:48:30. **Bukatu:** 00:49:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Arto-zuriketan. Neska-mutilak auzolanean.

20. Afalondoko giroa

- **Erref:** ESK-006/021
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:49:50. **Bukatu:** 00:53:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Aitak afal-ostean arrosarioa errezatzen zuen. Aita eta ama, biak kontalariak. Kontuak entzutea gauza polita dela dio. Toponimia. Antzinako kontu bat aipatzen du.</p>

21. Neskame joatea nahi ez

- **Erref:** ESK-006/022
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:53:35. **Bukatu:** 00:56:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Familia kontuak. Anai-arreba ugari; gaztetan neskame joateko aukera izan zuen baina ez zen joan; baserriko bizimodua gustukoa zuen. Neska gehienak neskame; umezain; e.a.

22. Bataioaren inguruko ohiturak

- **Erref:** ESK-006/024
- **Iraupena:** 0:06:35. **Hasi:** 00:57:15. **Bukatu:** 01:03:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Emakumeak umea izan eta bataioa noiz egiten zen; umeak etxean edukitzen ziren. Ama, kalera irteten hasi aurretik, elizara joan behar zen bekatua kentzera. Aita eta ama puntakoak. Umeen izenak. Lehenagoko bizimodua.</p>

23. Ahaztu ezineko gerrako oroitzapen

- **Erref:** ESK-006/025
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:03:50. **Bukatu:** 01:05:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra Zibila. Barbarak 10 urte inguru zituen. Gauza asko ez ditu ondo gogoratzen, baina bonbardaketak ezin izan ditu ahaztu. Gordelekuak.

24. Aretxabaletatik ihesi

- **Erref:** ESK-006/026
- **Iraupena:** 0:05:05. **Hasi:** 01:05:50. **Bukatu:** 01:10:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Aretxabaletatik Gatzagara eta gerora Nanclaresera joan ziren ihesi gerra garaian. Itzuli zirenean, berriz hutsetik hasi behar. Tropak; "gorriak". Harrapaketak.

25. Aretxabaletatik ihesi

- **Erref:** ESK-006/027
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 01:10:55. **Bukatu:** 01:13:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Barbararen aitzak Nanclaresen 3 anaia zituen. Aretxabaletan ez zen gerrarik sumatzen; eskolara ere joaten ziren. "Abuelo" hegazkina. Bonbardaketak Aretxabaletan.

26. Gabonak

- **Erref:** ESK-006/029
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 01:15:45. **Bukatu:** 01:20:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Ospakizunak. Gabonak zelan ospatzen zituzten. Jatekoa; opariak. Errege eguna. Lehenagoko bizimodua, gaurkoa.

27. Umetako jolasak: tortolosak

- **Erref:** ESK-007/001
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak. Tortoloska nola egiten zuten.</p>

Transkripzioa

- Tortolisek zien...

- Ardixek edo billotsak aukienak tortolisek. Hori be guk asko eitten gauen, e! Kanika bateaz, e! Han be kanikie gora bota ta buelta emun ta gauzak ein biher izeten dau, e! Hori joku elegantie izeten zan gure sasoien, e! Asko eitten gauen guk hori be, tortoliske. Tortoliske. Nik ointxe be batzuk gordeta daukat, batenbati erakutsi edo ez dakixienei zerketako badauket gordeta be batzuk. Gure sasoien hori zan jokue, baiñe joku elegantie! Tortoliske.

28. Emakumeen, neska gazteen janzkera; usadioak

- **Erref:** ESK-007/002
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:01:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Neskak, emakumeak beti gona edo soinekoekin. Frakak janztea, ezta pentsatu ere. Asteguneko arropak; jai eguneko arropak.

Transkripzioa

- Eta lehen erropak, jazteko-ta, zuek emakumak beti goniekin esaten dozu, ezta?
- Bai, bai, bai.
- Beti goniaz edo soiñekuaz edo...
- Bai, soiñekua edo gona edo... Frakaik-edo orduen nik be sekula frakaik...! Oin, ba, zertu izen dot, ezta? Txandarrak edo. Baiña, bestela, sekula ezta pentsau be ez frakie emakumientzako zanik be! Beti gonakin.
- Ea domeketan betik elegantetxuao?
- Bai, betik, betik. Batzuk esaten euen aste-egunien soiñekue alde batera ta domeketan bestaldera. Baiña guk geuk beti domeketako domeketako erropak. Domeketan... Aste-egunien erropa batzuk eta domekarakuek guri gure ama zanak betik domeketakue diferente. Erropa zertxuauek, ez dakitzu? Hobatxuek...
- Hobatxuak...
- ...domekarako. Bai.

29. Gatzaga inguruko auzoetako erromeriak

- **Erref:** ESK-007/003
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Marulandako erromeria, oso ezaguna. Marinen, Madalenak ospatzen ziren; San Bartolome jaiak ere oso ezagunak ziren eta onenak, Gatzagako Andra Mariak. Alde guztietara oinez joaten ziren; gerora bizikleta ere izan zuten. Oso auto gutxi zeuden garai hartan; erromeria ere bidean egiten zen.</p>

Transkripzioa

- Eta erromerixie esan dozu hemen Maulandakue zala...
- Maulanda...
- Baiña, bestela, beste nunbaittetako... beste nunbaitteko jaixek zienien-ta faten zitzen?
- Jaixek zienien bakotxa berera be bai. Jaixek zienien Maringo... Madalenak Mariñen. Ba, Madalenetan egun pare baten Mariñera faten gitzen. San Bartolome Gaztañixen; beste geun pare baten San Bartolomera faten gitzen. Ta hemen inguruen fiesta onenak Gatzagan.
- Gatzagakuek?
- Gatzagako Andra Marixek "indiscutable". Han hiru-lau eguneko fiestak onen-onenak.
- Bai. Ta atsalde-pasa edo egun-pasa edo zela faten zitzen?
- Bai, atsalde-pasa.
- Bazkalostien?
- Bazkalostien komenta. Komenta bazkalostien faten gitzen. Bai. Oin baiño goxau. Oin baiño goxau. Klaro, bai, illunkararako etxera etorteko, illunkararako etxera etorteko, lehenau. Bazkalostien, ba, nik dakit lauretan

edo... ze... erromerixia ekin bihar illunkararako etxera etorteko, gure gazte-denporan.

- Eta oiñez, ezta, alde batera ta bestera?

- Oiñez, oiñez, oiñez. Bai, bai. Orduen ez euen automobillik eta zeraik. Gero bizikletie euki neuen neuk be, baiña...

- A, bai? Euki zauen bizikletia, e?

- Bai, bai. Bai, gu [Jesusa-errotako] tokixen bizikleta asko [ibiltzen gitzen].

Asko, bai. Baiñe gure neskatala-denporan oiñez: Mariñera be oiñez eta Gaztañixera be oiñez. Ze automobil euen, ba, orduen be? Pentseizu ze automobil egongo zan, Gaztañixen kamiñuen egoteko erromerixia! Ta Maulandan kamiñuen egoteko! Ni akordetan... Ni erromerixan Maulandan egon ta, pentseizu, atsalde guztien, e! Illunkarara arte, atsaldien ekin ta, ba, lauretan edo gura danien ekin ta illunkarara arte, bai? Eta nik makiña bat bider automobil bat pasau barik. Bat!

30. Herriko pertsonai ezagunak

- **Erref:** ESK-007/004
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

<p>Oso auto gutxi. Don Jesús medikuak motorra zuen. Mediku, irakasle eta abadeei berorika egiten zitzairen. Herriko pertsonai garrantzitsuak.</p>

Transkripzioa

<p>- Orduen, medikuek-eta be ez zaukien automobillik. Ez? Medikue-ta be oiñez? - Medikuek be oiñez… Motorraz akordetan naz ni, Don Jesusek motorra euen. Orduen lehelengokuek motorrak eukiko euen. - Motorra euen? - Motorra, bai. Akordetan naz ni don Jesus motorrien etortzen zana. Bai. - Orduen medikue ta abadie ta dana “don” izeten zien, ezta? - Bai, bai, abadie eta medikue “don”. - Eta maistrue edo maistrue? - Bai, haik be “don”. “Doña Petrita” edo “Doña Maria” edo “Doña los que sea”, “doña” edo “don”. Lehen “don” ifintten jakuen. Bai. - Eta abadie be “beroi” esaten jakon? - “Beroi”, abadie “beroi”. - Bai, hori errespetuzkua izengo zan, ezta?</p>

31. Abadearekin izaten zuten harremana

- **Erref:** ESK-007/005
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:06:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Abadearekin harremana. Txerria hiltzen zutenean, abadeari odolosteak eramaten zizkion eta ordainean "pezeta zurixa" (zidarrezkoa) ematen zion.

Transkripzioa

- Abadie "beroi".
- Bai, hori errespetuzkua izengo zan, ezta?
- Errespetuzkue zan, bai. Orduen holaxe zalakotan. Ba, abadiak "beroi" esaten jakon betik. Onbre! "Beroi" hortik, "beroi" hemetik. Klaro.
- Eta eskuen mun-eta emoten jakon?
- Baitte.
- Bai, e?
- Bai, ni akordetan naz don Josei be zelan emuten gotsen. Txarrixek hiltten gauenien, ni akordetan naz ni neskatiillia, eta guk beziño bixok txarrixek egun baten hiltten gittuen. Ta hori nire koñetie esan doten mojioi eta ni batera faten gitzen don Joseana eruten txarri-mortzillok.
- A! Eruen eitten zotsien?
- Bai, bai, guk eruten gutsen, nire neskatiilla-denporan eruten gutsen. Eta, gaiñera, emuten oso ona zan. Pezetia, zurixa esaten jakon orduen, zidarrezko pezetia. Ta akordetan na' ni gure koñetiei emungo otsen pezetie, ba, eskuetara. Ta gaiñetikue be jaten ta zera, baiñe pezetia. Ta orduen pezetia nok emuten euen? Orduen txarri-mortzilliekin zoiezenien be emuten baotsuen bost txakur haundi edo dezente zan, e!
- Eta hori propiñia izeten zan?
- Propiñia, bai. Ta gure koñetiei emuten otsen. Abade difuntuek niri — akordetan naz— hak abade difuntuek niri pezetie holaxe [ifiniko] ostan, apur bat bistan. Nik itten notsen ahalegiña! Pezeta barik etorri etxera...? Serixo esaten ostan ta, klaro, abade batek serixo esan ezker...: "Ez badostezu ataraten, diru bae fan bihar dozu. Bestioi, ikusten dozu, lxabelek hartute dauko. Baiña zuk ez badostezu ataraten...", serixo. [Nere artien], hau dok ona! Ha pezeta barik etxera etortie zan ona! Badakitzu etxera etorri ta "Ama, beitu, don Josek pezetie emun..." zer zan ha? Pezetie orduen! Holaxe, apur bat itxiko osten, geru' ta gehixao, geru' ta gehixao... Ha zan ona! Berak gure ebenien soltetan osten ta eskutik ebatute ni. Eskutik larrei ebaketie be ez nitzen atrebiduten, ebatu biher... nik ibiltten nauen zera! Don Jose difuntuek... Makiña bat denporan, gaiñera! Bai. Bai, bai.
- Orduen, txarrixek hiltten zani eruten jakon?
- Bai, bai, guk geuk eruten gutsen, gure beziño bixek nire... Gero ez, gero ez. Baiña nire neskatiilla-denporan betik eruten gutsen.
- Ha ohitturie izaten zan edo obligaziñue edo?
- Ez, ez, obligaziñoik ez. Ez, ez, ez, ez.
- Obligaziñoik bapez...
- Ez, obligaziñoik ez euen.

32. Baserritarren eta abadeen arteko harremana

- **Erref:** ESK-007/006
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:06:15. **Bukatu:** 00:10:10

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Garai batean abadeei, besteak beste, garia eman behar izaten zitzairen hileta-elizkizunetan errezoak egitearren... Egurra, kapoiak... ere eramaten zitzaizkien. Egoera erabat aldatu da.</p>

Transkripzioa

- Bestela, anega-erdixek eta obligaziñue euen moduen, hori, ba, noberak gure [euenak].

- A! Ta anega-erdixa ta ze izeten zan hori?

- Horreik, anega-erdixe ta? Gaur [Mazpalan] erabili dou horixe konbersaziñuori abadie tentetan, gaiñera, ondion. Gaur, ba... ene! Ze barre ein [dot] abadiatz. Horreik obligaziñuek auzen lehen ifinitte abadiantzako. Ta neuk esan dot gaur [Mazpelan] "ni tanto ni tan calvo", ta danak esan dostie: "Ze egixa". Lehengo abadiak be larreikuek zien. Erresarixue... Hiltten zan bat, ezta?

- Bai.

- Eta hari errezaten etsen zerak, abadiak, eta haren ordean anega-erdi gari. Bi bazeukazun, bi anega-erdiko. Ta asko toketan zan, e! Nik... akordetan naz nire aittegiñarreba hil zanian, gero maiorazkuak... Ba, ez dakit, ba, nik hemen auzuen zenbat egongo gazen maiorazkuok. Behintzat gurie maiorazko. Eta akordetan na' ni abadiak: "Maiorazkuena hainbeste". Errezuek esaten jakon horri, errezuek. Zuk bazaukotzun bat, bazaukotzun bi, errezeuek. Ta obligaziñokua? Nik badakit aittegiñarreba hil zanien be ze takarradia pagau nauen, e! Orduen ez auen holan dirue oingo moduen montoraute; orduen pillo txikittik etara biher izaten zan, e! Ta horixe esaten [...] nik. Gaurko kontue da [Mazpalan] hori. Ta neuk esan dotsiet, abadiak edo —ba, abadie tentetan ibili gara— lehenau abadien kapoiek-eta emoten jakola ta oin ezebez. Eta batzuk han gauza bat, beste batzuk beste bat eta esan etset: "Urrutia, Urrutia". Ta gengozen, gu, ez dakit, ba, hamabi bat andra edo egongo gitzen ta bea bakarrik ta "Urrutia, toki txarrian sartu zara! —esan etsat— Toki txarrian sartu zara. Hemen al corro de la patata ta zeu bakarrik... Ta, ikusten dozu, gauza edarrak esaten ekin zara". Ta, klaro, lehengo... lehenau kapoiek eta gauzak ez dakit egongo zien, baiña garixe bai, behintzat. Ta bat hiltten zanien, zuri urten eitten etsun diruek, e!

- Bai, bai...

- Bai, ya lo creo!

- Eta egurre ta be ez jakon eruten?

- Bai, sasoi baten bai. Sasoi baten bai. Eta gero, hau, don Jose egon zanien, sagrarixuei olixue ez jakon zerketan, iñok ez otsen zerketan, ba, bera erregletan zan, berak-edo ifintten euen olixuoi. Ta don Antonio etorri zanien, litro bat olixo auzo... beziño bakotxai ifiñi etsan hak.

- Litro?

- Bai.

- Ta orduen olixue ez zan asko egongo, ez?

- Olixue, gaiñera, elixakue onena segurua'. Ta, ba, [harek] ifini euen modia ta abadia be gaiñetik pagau eitten jakon.

- Bai, bai.

- Ta horri, ba... Gaur konberstaziñua: oinguak... lehengue larreixa, eta oinguei ezebe-ezebez. Ikusten dozu? Gaur neuk horixe esan otsiet, “ni tanto ni tan calvo”, lehengue... Ba, batek esan dau, kapoiek be esan dau. Nik ez dakit, egixa esateko, ni [... oillaskue] ta neuk esan etset: “Neska, neuk kapoiek abadiet erun dotsetenik sekula ez nai´ akordetan; oin, garixe bai”, ta gero nire aldamenien bestaldien euenak be esan dau: “Bai, errezoia daukotzu, garixe bai”. Hori... hori obligaziñue izeten zan. Urtien anega-erdi edo bi edo erreziek; zuk erreziek bi bazaukotzun, bat bazaukotzun... segun.

- Bai? Beitu, e? Eta gehixao euki ezker...

- Bai. Ta anega-erdi urtien obligaziñokue; gero, errezu bakotxa beste anega-erdi, ta “entre una cosa y otra”...

- Bai, han juntetan zien, e?

- A, ez! Zera! Nik horrea ittik dakit aittegiñarreba hil zanien zenbat pagau nauen ordurako.

33. Baserriko lanak: garia

- **Erref:** ESK-007/007
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:11:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Baserrian garia, artoa, baba... ereiten zuten beti. Lan guztiak eskuz egiten zituzten. Gariaren inguruko lanak; azalpenak. Gari-ebatea. Garia eta artoa errotara.</p>

Transkripzioa

- Ta, orduen, baserrixen garixe eukitten zauien artue be bai eraindte, ez?

- Bai, bai, bai.

- Babie be bai?

- Bai, bai. Babie ta garixe ta... Guk babie sekula faltan ez dou izen ta artue ta garixe ta... garixe be dezente gure sasien.

- Ta porruet eta hori be etxien eukitzen zauien?

- Dana, dana, dana.

- Patatie-ta be bai?

- Nire gazte-denporan guk dana etxien euki dou. Bueno, oin be bai, ezta? Baiña oin garirik ez, ta artue be hutsa daukou, baiña lehen artue asko, gaiñera. Asko. Eta garixe be bai, neure neskatilla denporan, ya haundi ein arte, garixe? Gari... Guk gari dezente, gaiñera, eukitten gauen, e? Gari dezente eukitten gauen guk, e? Bai. Sasie zanien ebaitten “rin-rin-rin” ibili ein biher, dana eskuz itten geuen ta.

- A! Dana eskuz eitten zauien?

- Dana eskuz.

- Ta garixak eukiko zauen lana, ezta?

- Bai. Klaro, lehelengo ebai, gero lotu, gero mutxurixuek ein...

- Mutxurixuak in?

- Bai, ba, lotu eta ein mutxurixuak. Gero, metia. Metia, ba, bueltaka-bueltaka zeñek elegantetxuaua ein, ba, metia. Meta bat, bi meta, hiru

meta, segun zela garixa zaukotzun. Bai, bai.

- Ta gero horrekin uruna eitten zan?

- Bai. Errotara eruen —zeuk gure bozun hona errotara, gure bozun Gaztañiko errotara— eta, ba, errotara eruen ta gero urune [eitten] zaukotzun ogixe eitteko, taluek itteko edo gure dana itteko. Etxien artue be bai eta... [guk be bixek be joten gittuen] artue be bai ta urune be bai. Zeuk gura dozun errotara eruan...

34. Herrira saltzera; oiloak nola hazten zituzten

- **Erref:** ESK-007/009
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Herrira joaten ziren arrautzak saltzera. Amak egunero oiloei "zaperua" ematen zien. Neguan gainera, koilarakada bat piper gorri ere ematen zien.

Transkripzioa

- Orduen, danetik eukitten zauien...

- Danetik.

- Ta gero arrautzak saldu eitten zittuen?

- Bai, arrautzak bai, arrautzak bai. Arrautzak guk geuk saldu dou. Nik neuk be hemen be saldu dittut eta ni hona etorri aurretik, ni... gure ama zanak euki euen... Nik ez dakit nundik horixe, ze nundik gure amak auken zera, hori amistadioi. Donostiako diputaziñoko txofer bat etortzen zan gurera astien-astien, astien egun baten Donostiatik, orduen sasoi. Ta aukenak, ba, asterako eruten otsen egunien dozena bat edo gura dana asterakuek, ba, zazpi dozena edo aukenak edo sei edo zazpi edo zortzi, aukenak, eruten otsen. Ta akordetan naz ni gure ama zanak hemen garajia... Ointxe be [...] hor etxian. Etxe barrixa ein auen, baiña lehengo zaharreko zera da. Hor ate bat, zu oin pasau zarenien ate haundixe Benta Zaharren?

- Bai.

- Ba, han. Garajie esaten jakon, hak auken izena garajia. Ta han oilluak... atie be gure amak zerrau itten otsen zera, irristuen neguen edurre-ta auenien ta hola. Edur gesala ta neguen? Zertu eitten otsen, danak irristuik be zerrau eitten otsen. Egunero-egunero-egunero zaperue emuten otsen.

- Zaperue?

- Zaperue. Patata egosixek, patata azalak, patatak, egosi ta apurtu-apurtu ein ta arto-urunaz. Arto-urunaz zaperua. Ta gure ama zanak botaten otsen egunien koilarakada bat piper gorrixa, negurako beroketako ona zala ta.

- Beitu...

- Bai, piper gorrixa koilarakada bat. Ba, gure amak neguen be arrautzak betek eukitten zittuen. Ta nik horixe ez dakit nundik amistadia hartuta eukan, baiña Donostiatik diputaziñoko txoferra etorten zan, urtietan nire neskatiilla-denporan. Ta gure amak arrautzak zestotxuan —zesto bata eruten euen ta bestie ekarri, ta —zestotxuan ifinita eukitten zittuen sei dozena, zazpi edo zortzi, aukenak, hantxe. Ta txoferroi etorten zan hartu, amai pagetan otsen, aide! Zortzixen behin etorten zan.

- Beitu...

- Bai, bai, bai.
- Donostiatik, e?
- Donostiatik. Ta urtietan etorri zan nire neskatiilla-denporan, urtietan. Ta horixe amistadia nundik hartuta euen horixe ez dakit. Ez naz akordetan nundik auken gure guresuek amistadia.

35. Ikazkintza eta karegintza inguruko baserrietan

- **Erref:** ESK-007/010
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:40. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikazkintza; karegintza. Gizonezkoen lana batez ere. Txondorrak ikusi izan ditu inguruko basoetan. Karobi-zuloa ere ezagutzen du, baina karea egiten ez du ikusi.

Transkripzioa

- Eta, gero, iketzik eta kareik eta eitten zauien zueik hemen?
- Iketza neuk, osea, ez dot... hortxe ez naz... ikusi ta ez dot ein. Bueno, ikusi-ta bai ondo ta, baiña gurien geurien be iketza eindda dau.
- Bai?
- Bai.
- Hor gizonezkuek ibiltten zien, ezta?
- Gizonak, gizonezkuak, bai. Ni ezkondu nitzen aurreko urtien be gurien aittegiñarrebak esaten euen han basue Gatzagan daukou eta orduntxe euzela iketzak eindda. Txondor paren bat edo ein auen iketza.
- Eta kareik? Kareik?
- Karaik ez dot ikusi.
- Ez, e?
- Ez, karaik ez dot ikusi, hoixe ez. Baiña txondorra hemen Marin basuen be ikusitta daukat, egurra ipintten illera-illera-illera-illera zela ipintten zan danak holaxe illera-illera-illera-illera bueltan-bueltan-bueltan-bueltan zela ipintten euen badakit, ikusitta daukat. Ta, gero, gaiña dana tapau ta sua emun ta... Hori bai, txondorra akordetan naz, neskatiilla-denporan akordetan naz. Bai. Oin, kareik ez, kareik ez jat tokau, geure etxien edo [neri] ez jat kareik tokau. Ikusteik be ez jat tokau. Karezulue baeuen hor zerien —vete a saber noskue dan—Marinzubin badau. Oin ixa apurtu ein da baiña karezulue badau.
- Badau...
- Karezulue esaten daue dala.
- Bai.
- Bai. Hori ikusi dot. Eta karezulue, oin, neuk ikusi ez dot ein. Nos esistidu dan hoixe ez dakit.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com